

EBAZPENA 2022ko uztailaren 27an, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta iragartzen baita lurralde plangintza, etxebizitza eta garraioetako sailburuaren 2022ko maiatzaren 2ko Aginduan aurreikusitako laguntzen ematea. agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2022ko Ekitaldirako Ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da euskal autonomia erkidegoko udalentsako eta arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia..

2022ko maiatzaren 23an argitaratu zen EHAAn Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko maiatzaren 2ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrietako kontzejueri paisaiaren ekintza-planak egiteko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu zen EHAAn argitaratu eta hilabetera, hau da, ekainaren 23an, dirulaguntzak ematea arautzen duen aipatutako Aginduen 7.1 artikuluen arabera, Horrela izanik, eskabide hauek sartu dira:

	Udala	Proiektuaren izenburua	Beziko gabeko aurrekontua
1	ALEGRIA-DULANTZI	PAP ALEGRIA-DULANTZI	14.899,04
2	MANZANOS	RECUPERACIÓN DEL CAMINO DE LA MURALLA ENTRE MANZANOS Y ARMIÑÓN	13.950,00
3	NAVARIDAS	PAP NAVARIDAS	29.500,00
4	BALMASEDA	PAP PARA LA MEJORA DEL HÁBITAT URBANO	32.000,00
5	DURANGO	PAP HABITAT URBANO	27.500,00
6	ETXEBARRI	PAP DEL PAISAJE FLUVIAL DE ETXEBARRI	22.350,00
7	LANESTOSA	PAISAJE URBANO DE LA VILLA DE LANESTOSA	14.700,00
8	MARKINA-XEMEIN	CUENCA BAJA DEL RÍO URKO	29.800,00
9	SESTAO	PAP DEL FRENTE FLUVIAL DE SESTAO	30.000,00
10	ZALLA	PAP ARANGUREN	28.400,00

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2022KO MAIATZAREN 2KO Aginduen 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, uztailaren 4an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikulua horren 3. apartatuan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa. 2022ko uztailaren 21ean, balorazio-epaimahaiaren eraketa eta osaera adierazten dituen akta udal eskatzaile guztiei jakinarazi zitzaion, abstentzio-eskubidea eta errekusatzeko eskubidea bermatzeko, dirulaguntza hauek arautzen dituen Aginduen 9.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Aipatutako aginduaren 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 300.000 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ez BEZa ez bestelako zergak ezin izango direla diruz lagundu.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, agindu arautzailearen 9.3 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, proposamen horretan jasoko dira ukatzeko diren eskabideen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak.

Azkenean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko maiatzaren 2ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2022ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia), eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiarako ekintza-planak idazteko dirulaguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejuei, adierazitako zenbatekoan:

	Udala	Proiektuaren izenburua	Puntuak	Dirulaguntza
1	MARKINA-XEMEIN	Cuenca baja del río URKO	8	26.820,00
2	ZALLA	PAP ARANGUREN	7,5	25.560,00
3	BALMASEDA	PAP PARA LA MEJORA DEL HÁBITAT URBANO (fluvial)	6,5	28.800,00
4	DURANGO	PAP HABITAT URBANO	5,5	24.750,00
5	MANZANOS	RECUPERACIÓN CAMINO DE LA MURALLA MANZANOS-ARMIÑÓN	5,25	12.555,00
6	ETXEBARRI	PAP DEL PAISAJE FLUVIAL	5,25	20.115,00
7	SESTAO	PAP DEL FRENTE FLUVIAL	5,25	27.000,00
8	ALEGRAI-DULANTZI	PAP ALEGRIA-DULANTZI	5	13.409,14
9	NAVARIDAS	PAP NAVARIDAS	5	26.550,00

Bigarrena.– Paisaiarako ekintza-planak egiteko dirulaguntzak ukatzea ondoren

zerrendatutako udalei, eta kasuan kasu ukatzeko arrazoiak:

	Udala	Ukazioaren zergatia
1	LANESTOSA	Ez da iritsi 5 puntuko puntuaziora

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztientzako jakinarazpen-balioa izan dezan.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan jarritz ematea jakitera.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordea,
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.